



**ZUBIETAKO UDALA**  
(Nafarroa)  
31746

Francisco Michelena Celayeta.  
Leire Bazterrika Loiarde.  
José Maria Michelena Erasun.

2019ko urtarrilaren 24ean, 8:00etan, Zubietako Herriko Etxean elkartzen dira ezohiko biltzarrean ondoan aipatzen diren zinegotziak, legeak eskatzen duen bezala deitu eta gero. Ernesto Dominguez Olea —Alkatea— da bilkurako burua eta idazkaria, Beñat Ripodas Beroiz. Gai Zerrendako gai hauek aztertu dira:

### **1.- Balorazio Ponentzia.**

Azalduta ponentziaren egoera zein den, eta Lurrealde aberastasuneko sailarekin osatu behar den batzorde mistorako hiru ordezkari izendatu behar direla, Udalburuak bozkatzera deitu du:

Alde 4  
Abstentzio 3

**Udalbatzak erabaki du:**

**1.- Ernesto Domínguez Olea, Francisco Michelena Zelayeta eta Jose María Michelena Erasun izendatzea udal ordezkari Batzorde mistorako.**

**2.- Ordezkariak izendatu ondoren, behar den dokumentazioa bidaltzea Lur aberastasun sailera batzorde mistoa osatzeko.”**

### **2.- Aurkidiko bidea.**

Kontratazioaren Kudeaketa Unitateak gutun azalen irekieren aktak aurkeztu dizkio Udalbatzari. Aktak ikusita eta empresak dokumentazio guztia aurkeztu ondoren, Kudeaketa Unitateak, Sasoi Eraikuntak S.L. proposatu du behin behineko adjudikaziodun bezala, lizitazioan puntuazio gehien atera zuena izan delako (96 puntu). Proposamena aztertu ondoren, Udalburuak bozkatzera deitu du:

Alde 4  
Abstentzio 3

**Udalbatzak erabaki du:**



**ZUBIETAKO UDALA**  
(Nafarroa)  
31746

**1.- Aurkidiko bideko obra Sasoi Eraikuntzak S.L. empresari esleitzea.**

**2.- Esleipena 10 egunez etetea.**

**3.- Akordioa interesdunei jakinaraztea.”**

Eta bertzerik ezean, 9:00ak direnean, alkate jaunak bilera akitutzat eman du, eta nik, neronek, idazkaria naizenez, ziurtatzen dut.